

ADIKZIOEN TOKIKO PLANA

2025-2029



ermua

AURKIBIDEA

Página

1. Aurkezpena	3
2. Arau-esparrua	4
3. Adikzioen Tokiko Planaren ebaluazioa Ermuan 2018-2022	12
3.1. Adierazleen ebaluazioa	12
3.2. Jardueren deskribapena eta parte-hartzaile kopurua	15
4. Adikzioen inguruko egungo diagnostikoa	20
5. Ermuko Adikzioen Tokiko Plana 2025-2029	29
5.1. Esku hartzeko lehentasunezko espazioak eta kolektiboak	30
5.2. Ildo estrategikoak eta proposatutako ekintzak	31
5.3. Adikzioen tokiko Planaren ebaluazioa eta koordinazioa	35

1. AURKEZPENA

2018an, Ermuko Mendekotasunen Udal Plana onartu zen, Drogamenpekotasunen arloko Aurrezaintza, Laguntza eta Gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 8/1998 Legeari dagokionez udal mailan arlo horretan prebentzio-neurriak hartzeko beharrari erantzuteko. Horrela, 2018an Planean ezarritako ekintzak garatzen hasi ziren, eta, gaur egun, ebaluazioari ekin zaio.

Hurrengo orrialdeetan, honako hauek ikusiko ditugu:

- Adikzioen eremuan garatu beharreko jardueraren printzipioak finkatzen dituen arau-esparrua.
- 2018-2022 aldiko Adikzioen Tokiko Planaren ebaluazioa, adierazleak bete diren kontuan hartuta eta garatutako jarduerak deskribatuz.
- Adikzio/substantzia mota ezberdinei dagokienean gaur egungo egoeraren diagnostikoa.
- 2025-2029 aldirako jarduketa-proposamen berria; hau da, Ermuko Adikzioen Tokiko Plan berriaren bidez gauzatu beharreko jarduketaren definizioa.

2. ARAU-ESPARRUA

1/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Adikzio eta Droga Mendekotasunen Arreta Integralari buruzkoa.

68. artikulua. – Udalen eskumenak.

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriei dagokie, bakoitzaren lurralde-eremuan:

1. Adikzioen Tokiko Plana eta, oro har, arlo horretako programak eta jarduerak egitea, garatzea eta gauzatzea, lege honetan eta Euskadiko Adikzioen Planean eta, hala badagokio, dagokion foru-planean jasotako preskripzioen arabera.
2. Adikzioen arloko aholkularitza- eta koordinazio-organoen sorrera eta funtzionamendu-araubidea, dagokion lurralde-eremuan.
3. Adikzioen arloko sariak eta aintzatespenak kudeatzea, dagokien lurralde-eremuan.
4. Lege honetan aurreikusitako kontrol-neurriak betetzen direla gainbegiratzea eta zaintzea.
5. Ikuskatzeko eta zehatzeko ahala erabiltzea, lege honetan aurreikusitako moduan.

Agindutako lanak egiteko, udalek banaka edo modu mankomunatuan jardun ahal izango dute.

9. artikulua. Osasun-hezkuntza.

1. Osasun publikoaren ikuspegitik adikzioei eta droga-mendetasunei arreta integrala ematera bideratutako jarduera eta neurriei dagokienean, osasun-hezkuntza oinarrizko estrategia da, bai osasunaren sustapenerako, bai adikzioen eta droga-mendetasunen prebentziorako.
2. Osasun-hezkuntzak erantzukizun pertsonala eta soziala sustatuko du, ezagutzak, jarrerak eta ohitura osasungarriak txertatuz, eta norberaren eta taldearen osasuna hobetzeko balio, jarrera

eta trebetasun pertsonalak lantzen lagunduko du, norberaren eta besteen osasuna zaintzeko erabakirik egokienak hartzeko gaitasunez hornituz.

3. Era berean, osasunerako hezkuntzaren helburua drogekiko eta adikzio-ahalmena duten beste substantzia batzuekiko mendekotasunak eta jokabide-adikzioak saihestea izango da, bai kontsumoari dagokionean, bai jokabideei dagokienean eta bai aurrekoen arrisku-faktore aitzindariak dagokienean.
4. Osasun-hezkuntzak pertsona eta talde guztiak inplikatu ditu, beren jardura-eremuagatik estrategia hedatzen lagundu eta erraztu dezaketenak, batez ere bereziki kalteberak diren pertsona edo kolektiboen artean.

13. artikulua. Adikzioen prebentzioa.

1. Administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, eta bereziki osasun-sisteman, gizarte-zerbitzuen sisteman eta hezkuntza-sisteman, herritarrak sentsibilizatzea eta informatzea bideratutako prebentzio-neurriak hartuko dituzte [...].
2. Botere publikoek, dagozkien jardun-eremuen barruan, prebentziozko esku-hartzeak bultzatuko dituzte bizi-baldintzak hobetzeko, adikzioetan eragiten duten bazterkeria-faktore pertsonalak, familiarrak edo sozialak gainditzeko, eta kaltetutako pertsonak beren komunitate-ingurunean normaltasunez sar daitezen laguntzeko. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean ezarritakoaren arabera, bazterkeria eragiten duten egiturazko kausak aztertu eta prebenitzera, herritarrak beren ingurune pertsonal, familiar eta sozialean integratzera eta gizarte-normalizazioa sustatzera bideratutako jarduerak lehentasunezko jardun-eremutzat hartuko dira, eta egun dauden gizarte-zerbitzuen programen barruan sustatu beharko dira.
3. Lege honen 9. artikuluan osasun-hezkuntzaren arloan ezarritako helburu orokorren osagarri gisa, osasun publikoko eta lehen mailako osasun-arretako zerbitzuek Erkidegoko eragileekin koordinatuta prebentzioz jardungo dute bizi-ohitura osasungarriak sustatzeko estrategia eta programak jardunean jarriz, eta informazio-ekintzak, detekzio goiztiarreko eta ohitura desegoki edo abusuzkoak aldatzeko kanpainen bidez.

15. artikulua. Familia-eremuko prebentzioa.

1. Familia funtsezko elementua denez seme-alaben heziketan eta prestakuntzan, eta adikzioak prebenitzeko estrategiak, balioak, trebetasunak eta gaitasunak transmititzen, esku-hartzeak eta programak abian jarriko dira haur eta nerabeen artean babes-faktoreak sustatzean gurasoak edo tutoreak duten eginkizunaren garrantziari buruz sentsibilizatzeko.
2. Prebentziorako esku-hartzearen esparruan, familiari babes berezia emango zaio, helburu hauekin:
 - Hezkuntza- eta familia-kudeaketako gaitasunak hobetzea.
 - Familia-nukleoak esposizioarekiko eta kontsumoarekiko duen erresistentzia sendotzea.
 - Arrisku-faktoreak murriztea eta seme-alabetan substantzien kontsumo problematikoetatik babesteko faktoreak areagotzea, familiak prebentzio-agente legez duen funtzioa sendotuz, bereziki adingabeak eta gazteak dituzten familietan.
3. Herri-administrazioek lankidetzarako eta koordinazio eraginkor eta efizienterako bideak ezarriko dituzte erakunde publiko eskudun guztien, guraso-elkarteen, erakunde pribatuen eta jardueraren eremu horretan esku hartzen duten irabazi-asmorik gabeko erakundeen artean.
4. Prebentzio-neurri hauek hartuko dira (besteak beste): Arrisku-egoeran edo kalteberatasun-egoera handiengan dauden familientzako neurriak garatzea:
 - Informazioa, aholkularitza, orientazioa eta esku-hartze sozioedukatibo eta psikosoziala. [...]
 - Gizarte-arriskuko kasuetan Gizarte-zerbitzuek familian esku hartzea.

16. artikulua. Komunitate-eremuko prebentzioa.

1. Komunitate-eremuko prebentzioak lehentasunezko izaera du, eta herritarrengan edo interes handieneko taldeengan eragin handiena duten baliabideak eta pertsonak biltzen ditu, hala nola

ikastetxeak, gizarte eta kultura zerbitzuak, gazte-elkarteak, kultura-elkarteak, kirol-elkarte eta boluntariotza-elkarteak, profesionalen kolektiboak eta lantokiak.

2. Komunitate-eremuko prebentzioa udalek eta mankomunitateek garatuko dute batez ere, beren eskumenen arabera, pertsona eta komunitateei ematen dizkieten zerbitzuen hurbiltasunagatik.

22. artikulua. Kirol, aisialdi eta denbora librearen eremuko prebentzioa.

1. Osasunaren, gazteriaren, kirolen, kulturaren eta hezkuntzaren arloan eskumena duten euskal herri-administrazioek, substantzien kontsumoaren, mendekotasun-portaeren eta jokabide-adikzioak sor ditzaketen bestelako jokabide arriskutsu eta gehiegizkoen ordeztako aisialdia erabiltzeko politika-eredu integrala sustatuko dute, batez ere gazte eta nerabeen artean.

2. Horretarako ondoko jarduketak egingo dituzte, besteak beste:

- Dibertimendua, aisia eta denbora libre erabiltzeko modu osasungarriak eta dibertsifikatuak eragitea.
- Teknologia digitalen eta horien aplikazio berrien erabilera arduratsua sustatzea, dibertsioa, aisialdia eta denbora librearen eremuan[...]
- Gazteen asoziazionismoa eta okupazio-, aisialdi-, kirol- edo kultura-programetan elkarleen parte hartzea bultzatzea, batez ere arriskuan dauden gizarte-kolektiboen artean.

Euskadiko Adikizioen VIII Plana 2023-2027

Euskadiko Adikizioei buruzko 2023-2027 Planean etorkizuneko erronkak jasotzen dira, VII. Planean zehaztutako 5 ardatzen arabera zehaztuta.

Prebentzioa

- Ingurumen-prebentzioko neurriak indartzea.

- Prebentzio selektibo eta egokitan ahaleginak areagotzea.
- Prebentzio-arloko metodologiak berritzea.
- Genero-aldagaiari heltzeko tresnak indartzea.
- Joko eta teknologia digitalen eremuko-prebentzio-programak bultzatzea.
- Gehien kontsumitzen diren substantzien desnormalizazioa gehiago lantzea.
- Lan-ingurunean prebentzioa indartzea.

Eskaintzaren kontrola

- Araudia gehiago bete dadila lortzea, bereziki biztanleria ahulenari dagokionean bereziki.
- Cannabisarekin lotutako elementu jakin batzuk arautzeari buruzko hausnarketa egitea.
- Legeen eta arauen diseinuan gizartearen parte-hartze handiagoa sustatzea.

Gizarte-laguntza eta -inklusioa

- Profilaren eta arazoen arabera ibilbide argiak zehaztea,.
- Substantziarik gabeko adikzioekin lotutako arazoak dituzten pertsonentzako zerbitzuak eta laguntza indartzea.
- Kolektibo batzuei arreta jasotzeko aukera erraztea.
- Patologia duala duten pertsonentzako zerbitzuak indartzea.

Ezagutza

- Informazio-iturriak eguneratzea.
- Jardueren eraginkortasuna eta eragina ebaluatzeko sistema handiagoa sortzea.
- Arlo guztietako prestakuntza indartzea.

- eremu kritikoetan ezagutza sortzea; besteak beste, genero-ikuspegian, patologia dualean eta substantziarik gabeko adikzioetan.

Lidergoa eta koordinazioa

- Koordinazio soziosanitarioan aurrera egitea.
- Osasunaren prebentzio eta sustapenaren arloan sareko lana indartzea
- Osasun-sistema publikoaren eta enpresako prebentzio-sistemen arteko koordinazioa hobetzea.
- Adikzioen Planaren jarraipena egiteko topaguneak sortzea.

185/2015 DEKRETUA, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa

Adikzioen Prebentzio Komunitarioko Plan bat zorro horren 1.5 kapituluaren koka liteke: Gizarte Zerbitzuetan parte hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua, GZESaren berezko helburuak lortzen eta Gizarte Zerbitzuek artatu ditzaketen premien prebentzioan eta arretan komunitatearen parte-hartze antolatua sustatzen duen neurrian, informazio- orientazio, sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak garatuz,

Komunitatearen eta sareko lanaren ikuspegitik, eta osasunaren sustapenaren babespean.

Euskadi 2030 Osasun Plana

Lehentasunezko arloak ezartzen ditu, dagozkien helburu, ekintza eta adierazleekin, eta planaren helburu nagusia haurrak eta nerabeak beren osasun-ahalmen guztiarekin jaio, hazi eta garatzea dela azpimarratzen du.

Datozen urteetan haur eta nerabeen osasun fisiko eta emozionalerako arriskuak prebenitzean sakondu nahi du, substantzien kontsumoa eta adikzio-potentziala duten jokabideak murrizteko programak definituz eta hedatuz.

Halaber, osasuna hobetu eta morbiditate murriztu nahi du, Euskadiko biztanleek jokabide osasungarriak izan ditzaten eta, horrela, arrisku-faktoreekiko esposizioa ahalik eta gehien murriztu dadin, baldintza mesedegarriak sortuz eta estrategia ezberdinak diseinatzuz: ekitatearen ikuspegitik, ohitura osasungarriak (elikadura, jarduera fisikoa, tabakoaren, alkoholaren eta beste substantzia batzuen kontsumoa, adikzio-potentziala duten jokabideak, sexu-praktika segurua, laneko segurtasuna... azpimarratuz) hartzen lagunduko duten sektore-arteko estrategiak; herritarrei arrisku-faktoreei, jokabide osasungarriei eta eskura dauden baliabideei buruz informazioa emango dieten komunikazio-estrategiak, eta osasun komunitarioko lankidetz-estrategiak osasun publikoaren ikuspegitik.

12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa

Udalek gizarte-zerbitzuen arloan duten zeregina artikulatzen du, zeinak ikuspegi komunitarioan oinarrituta, beste sistema eta politika publiko batzuekin lankidetzan eta koordinatuta, herritar guztien ongizatea sustatzea baitute helburu.

Helburu nagusi gisa nabarmentzen dira, besteak beste, pertsonen, familien eta taldeen autonomia pertsonala eta gizarteratzea sustatzea.

Gazte plana Euskadi

"Garapena eta gozamena" ardatzean osasun integralarekin lotutako ekintzak jasotzen dira. Adikzioekin eta osasunaren sustapenarekin lotutako helburuen artean, honako hauek ditugu:

- Gazteen artean arrisku-portaerak eta/edo adikzioak prebenitzea (substantziarekin eta substantziarik gabe), eta kontsumitzen hasteko adina atzeratzea.
- Ohitura osasungarriak sustatzea.

Adingabeak eta Alkohola programa

Honako helburu hauek ezartzen ditu: adingabeen alkohol-kontsumoaren aurrean erakundeek ekintza areagotzea, alkohola kontsumitzen hasten diren adingabeen kopurua murriztea eta kontsumitzen hasteko adina atzeratzea; gehiegizko eta arriskuko kontsumoak murriztea; gazteek beren osasunarekin lotutako politiketan duten partaidetza handitzea; eta gazteek edateko dituzten presioak murriztea, bereziki alkoholaren sustape, babes eta eskuragarritasuna.

Tabako-kerik gabeko Euskadi delako estrategia

Helburua tabako-kontsumoaren prebalentzia murriztea da, tabakismoaren prebentzioan eta erretzaileari erretzeari uzteko laguntzan eraginez.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana

I. ardatzean, *Emakumeen ahalduntzea*, 1. programak *Emakumeen ahalduntze pertsonalerako eta kolektiborako laguntzak* 1.3. helburua jasotzen du: *Adin guztietako emakumeen autozaintza eta osasuna sustatzea*, honako helburu hau duela:

- 1.3.1. Autozaintza fisikoko ohiko praktikak egiten dituzten neskatoen, neska gazte eta helduen kopurua handitzea, elikadura orekatuaren, ariketa fisiko egokia egitearen eta arrisku-jokabideak murriztearen bidez, besteak beste.

3. ADIKZIOEN TOKIKO PLANAREN EBALUAZIOA ERMUAN 2018-2022

3.1. ADIERAZLEEN EBALUAZIOA

Adikzioen Tokiko 2018-2022 Planean, aurreikusitako emaitzak ebaluatzea ahalbidetuko zuten adierazle zenbait aipatzen ziren:

Ilido horretatik, adierazle horietako bakoitzari erantzuten dion informazioa jasotzen da:

Adierazlea	Emaitza
Osasuna sustatzeko eta adikzioak prebenitzeko programak dituzten ikastetxeen kopurua	Lortua
Deskribapena/Oharrak:	
Zuzentzen gatzazkion udalerriko ikastetxe guztiek parte hartzen dute, neurri handiagoan edo txikiagoan, adikzioak prebenitzeko zerbitzuak eskaintako jardueraren batean. Ikastetxe horiek IES Ermua BHI, San Pelayo eta Hasierako Lanbide Heziketako Udal Institutua dira.	

Adierazlea	Emaitza
Gauzatutako programa kopurua (eremu ezberdinetan)	Lortua
Deskribapena/Oharrak:	
2018-2022 aldirako Adikzioen Tokiko Plana gauzatu bitartean, 11 jarduera egin dira guztira. Eskola-eremura zuzendutako jarduerak ikastetxeen berezko jardueran txertatuta daude; beraz, jarduera ikas-maila bakoitzean gauzatu da, eta ikasle desberdinengana iritsi da.	
- Eskola-eremua: 6 jarduera - Komunitate-eremua: 3 jarduera - Familia-eremua: 2 jarduera	

Adierazlea	Eraitza
Parte hartu duen biztanleria (gauzatutako programa/jarduera bakoitzean)	Lortua
Deskribapena/Oharra:	
Jarduera bakoitzean parte hartu duen biztanleria osoa 3.2 atalean <i>Jardueren deskribapena eta parte-hartzaile kopurua</i> adierazten da.	

Adierazlea	Eraitza
Hainbat eragilerentzako (irakasleak, bitartekariak...) prestakuntza-jardueren kopurua	Lortua
Deskribapena/Oharra:	
1 Tokiko poliziari zuzendutako prestakuntza.	

Adierazlea	Eraitza
Banatutako baliabide didaktikoak	Lortua
Deskribapena/Oharra:	
Adikzio Aurretik jardueraren bidez, ikusitako filmean jorratutako gaia ikasgelan lantzea helburu duten unitate didaktikoetan sartzea bideratzen da.	

Adierazlea	Eraitza
Sortutako eta banatutako informazio- edo sentsibilizazio-materialak.	Lortua
Deskribapena/Oharra:	
Jaiak direla eta (Santixauak eta San Martin) komunitate-eremuan banatzen diren informazio-standak: hainbat substantzia-motari buruzko informazioa duten euskarriak banatzen dira.	

Adierazlea	Eraitza
Hedabideetan parte hartzea.	Lortua

Deskribapena/Oharrak:
Komunitatearen eremuko jardueri buruzko informazioa hainbat bidetatik zabaldu da: webgunea, santixauetako egitaraua, prentsako albisteak...

Adierazlea	Eraitza
Erakunde laguntzaileak	Lortua
Deskribapena/Oharrak:	
Erakunde laguntzaile esanguratsuenen artean honakoak aipatu behar dira: Eusko Jaurlaritza, adikzioen inguruan lan egiten duten hirugarren sektoreko erakundeak, osasun-sistema, udalerriko ikastetxeak...	

Adierazlea	Eraitza
Koordinatuta lankidetzan aritu garen baliabide komunitarioak eta harreman horren ondorioz garatutako ekintzak	Lortua
Deskribapena/Oharrak:	
Ikastetxeek beraiek ikastetxean bertan. Udaltzainak. Osasun-sistema.	

Adierazlea	Eraitza
Egindako aholkularitza-konsulten kopurua eta kontsultaren arrazoia	Lortua
Deskribapena/Oharrak:	
Kontsumitzaileei edo senideei arreta emateko zerbitzua. Lau urte hauetan 13 pertsona artatu dira guztira. 5 emakume eta 8 gizon. Kontsultak informatzeko eta baliabide espezializatueta bideratzeko izan dira, baita senideei laguntzeko ere.	

Adierazlea	Eraitza
Goiz detektatzearen ondorioz eginiko deribazioen kopurua	Zenbatu gabe
Deskribapena/Oharrak:	
Hala ere, baliteke bulegoan artatutako 13 pertsona horietatik baliabide espezializatu batera	

bideratu izana, detekzio goiztiar baten ondorioz.

3.2. JARDUEREN DESKRIBAPENA ETA PARTE-HARTZAILE KOPURUA

Planaren indarraldian zehar COVID-19tik eratorritako alarma-egoera gertatu zela adierazi behar da. Horrek eragina izan du aurreikusitako jarduerak gauzatzean eta garatzean. Aldi horretan, jarduera aurrez aurre egitea ezinezkoa izan denean, tresna digitalak erabili dira programak inplementatzeko.

Atal honetan, banan-banan azaltzen dira Plan osoan egindako jarduerak, jarduera-eremuen arabera bereizita.

3.2.1. Eskola-eremuan garatutako jarduerak

Peter Roberts mimoa.

Jarduera honen bidez, Peter Roberts mimoak kontsumo desagokiak izan ditzakeen arriskuak jorratzen ditu, pieza eszenikoen bidez. Ekintza hau IES Ermua BHI eta San Pelaion burutu zen 2019an eta 2022an.

- 2019: 148 pertsonak parte hartu zuten, 80 mutilek eta 68 neskak.
- 2022: 139 pertsonak parte hartu zuten, 61 neskak eta 78 mutilek.

Adikzio aurretik programa.

Planak iraun duen urte guztietan garatutako programa da. Ermua eta San Pelaio BHIko DBHko 4. mailako ikasleei eta Hasierako Lanbide Heziketako Udal Institutuko ikasleei zuzendu zaie.

Bere helburu nagusia substantziak eta alkohola kontsumitzen hasteko adina atzeratzea izan da, edozein arrisku-jarrerari hasieratik helduz.

Horretarako, hainbat film eta laburmetraia ikusi dituzte ikasgelan, eta tutoretzetan landu dituzte.

Hauek izan dira programa honetan landu diren gaiak: sare sozialen erabilera desegokia; autoezagutza, lehen harreman sozialak nerabezaroan; eta motibazioa nerabezaroan: substantzien kontsumoan laguntzeko agente bat.

- 2019: 114 pertsonak parte hartu zuten, 43 mutilek eta 71 neskak.
- 2020: 117 pertsonak parte hartu zuten, 77 mutilek eta 40 neskak.
- 2021: 112 pertsonak parte hartu zuten, 70 mutilek eta 42 neskak.
- 2022: 119 pertsonak parte hartu zuten, 69 mutilek eta 50 neskak.

Alkoholaren arriskua

Gazteen alkohol-kontsumoak sortzen duen kezkari erantzuteko programa da. Ermua eta San Pelaio BHIko DBHko 4. mailan egin da. Horretarako, kontsumo arduratsurako eta sor daitezkeen arriskuen aurrean nork bere burua zaintzeko jarraibideak eman ziren.

Programan zehar ikasleekin landutako materiala eskuragarri egon zen, besteak beste, alkoholaren arriskua eta irakasleei laguntzeko eskuliburu bat, CD formatuan.

Partaidetzari dagokionez, ondokoa izan zen:

- 2019: 116 pertsonak parte hartu zuten, 61 mutilek eta 55 neskak.
- 2021: 133 pertsonak parte hartu zuten, 75 mutilek eta 58 neskak.
- 2022: 113 pertsonak parte hartu zuten, 50 mutilek eta 63 neskak.

Kanabisaren kontsumoan taldeak sortzen duen presioari aurre egiteko trebetasunak

Programa honen helburua da gazteek kanabisaren kontsumoak eragin ditzakeen arriskuak ulertzea. Horretarako, kanabisaren kontsumoari, haren ondorioei eta arriskuei buruzko informazio objektiboa landu zen, eta kontsumoari buruzko zalantzak, mitoak eta uste faltsuak landu ziren.

Jarduera urtero egin da eta Ermua BHIko eta San Pelaioiko DBHko 2. eta 3. mailako ikasleei zuzendu zaie.

Hona partaide kopurua:

- 2019: 113 pertsonak parte hartu zuten, 69 neskak eta 44 mutilek.
- 2020: 148 pertsonak parte hartu zuten, 68 neskak eta 80 mutilek.
- 2021: 133 pertsonak parte hartu zuten, 58 neskak eta 75 mutilek.
- 2022: 140 pertsonak parte hartu zuten, 82 neskak eta 58 mutilek.

Online zurekin

2018ko ekainean, Ermua BHIk ikastaro bat antolatu zuen Interneti, aplikazioei eta sare sozialei buruz: erabilera onak eta arriskuak. Prestakuntzarekin hasi aurretik, dinamika garatzen zuten pertsonak gaiarekin zuzenean lotutako galdetegi bat pasatu zuten. 3. mailako ikasleei zuzendu zitzairen eta guztira 43 neskak eta 53 mutilek parte hartu zuten.

Tailerraren helburuak ondokoak izan ziren:

- Teknologien, sare sozialen eta aplikazioen arriskuei buruz informazioa ematea eta kontzientziaztea.
- Adingabeei arrisku-faktoreei buruz informazioa ematea.
- Erabilera-jarraibide egokiak adieraztea.
- Errespetua, erantzukizuna, enpatia, segurtasuna eta antzeko kontzeptuak baloratzea.

Mendekotasun teknologikoak eta joko patologikoa prebenitzeko tailerra.

Gazteak ausazko jokoekin lotutako arriskuen inguruan kontzientziazatzea eta sentsibilizatzea, batez ere kirol-apustuen eta online bideo-jokoen inguruan, eta jolastea erabakitzen badute, nork bere burua zaintzeko jokabideak indartzea, hainbat trebetasun sustatuz, hala nola bulkaden kontrola, erabaki hartzea, gatazken konpontzea eta pertsona arteko harremanak.

IES Ermua BHIk, San Pelaioak eta Hasierako Lanbide Heziketako Udal Institutuak parte hartu dute.

Tailerra honako partehartze honekin garatu da:

- 2019: 111 pertsonak parte hartu zuten, 63 neskak eta 48 mutilek.
- 2021: 117 pertsonak parte hartu zuten, 98 neskak eta 79 mutilek.
- 2022: 168 pertsonak parte hartu zuten, 78 neskak eta 90 mutilek.

3.2.2 Komunitate-eremuan garatutako jarduerak.

Ekitaldiak jaietan

Uztailaren 24an hasten dira Ermuko jaiak, herriko jende asko biltzen da jaiak ospatzeko eta beste herri batzuetako jendea ere etortzen da. Jaiek toxikoen kontsumoa handitzea dakarte eta, beraz, Adikzioak Prebenitzeko Udal Zerbitzuak aukera hau aprobetxatzen du opari txiki berezi batzuk banatzeko *En Santiagos... ¡Diviértete, sin pasarte!* " *"Santixauetan... Ondo pasau, pasau barik!* "Iemapean.

Poltsak IHESaren egunean

Programa hau HIESaren aurkako Munduko Eguna (abenduarien 1a) gogoratzeko eta horren arriskuak kontuan hartzeko kanpaina bat da. Hainbat jarduera egin dira: begizta gorria udaletxeko balkoian zintzilikatu, kondoia banatu gazteen lokaletan, liburuxkak banatu...

Kanpaina hori 2019an baino ez zen egin. Urte horretan begizta gorria udaletxeko balkoian zintzilikatu zen eta kondoia eta liburuxkak banatu ziren gazteen 32 lokaletan.

Drogen erabileran arriskuak murrizteko prestakuntza

2021ean Ermuko Udaltzaingoak egindako prestakuntza da, helburuak ondokoak izanik:

- Alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoetan arriskuak murriztearen ondorioak eta horretarako estrategiak ezagutzea.
- Egiazko informazio eguneratua eskuratzea gaur egun gure erkidegoan gazteen droga-kontsumoaren ereduari buruz.
- Prebentzioa eraginkorra izateko ezinbestekoak diren irizpide praktikoak ezagutzea.

Prestakuntza horretan 7 agentek parte hartu zuten, 2 emakume eta 5 gizon.

3.2.3. Familia-eremuan garatutako jarduerak

Kontsumitzaileei arreta emateko zerbitzua

Adikzioekin lotutako arazoak dituzten pertsonen laguntza indibidualizatua ematea, baliabide espezializatuaren sarbidea ahalbidetuz.

- 2019: 3 pertsona artatu ziren bulegoan, 2 gizon eta emakume 1.
- 2020: 3 pertsona artatu ziren bulegoan, 2 gizon eta emakume 1.
- 2021: 4 pertsona artatu ziren bulegoan: 3 gizon eta emakume 1
- 2022: 3 pertsona artatu ziren bulegoan: 2 emakume eta gizon 1.

4. ADIKZIOEI BURUZKO EGUNGO DIAGNOSTIKOA

Interesgarria da gure gizartean adikzioekin lotuta egon daitezkeen kezka batzuk aipatzea:

- Alkoholarekiko gizarte honek duen tolerantzia-mailaren inguruko kezka.
- Kanabisaren kontsumoari buruz dagoen gizarte-pertzepzio positiboarekiko kezka.
- Nerabeen eta gazteen alkohol-kontsumoaren erduei buruzko kezka, batez ere asteburuetan intentsiboak direlako.
- Kontsumitzen hasteko adinak aurrera egiteagatiko kezka.
- Nerabeen artean kontsumo-egoera berriak agertzeagatik kezkatuta dauden gazteak.
- Teknologiai lotutako jokabide-adikzioekiko kezka digitala.
- Substantzien kontsumoan emakumeen presentzia handitzeagatiko kezka.
- Substantziak eskuratzeko erraztasunaren inguruko kezka.
- Kontrolean, salmentan eta kontsumoan Adikzioen Legearen aplikazio txikiagatiko kezka.

Substantzia motei eta horien bilakaerari buruz (grafikoak) jarraian jasotzen den informazioa, batez ere Drogak eta Eskola X azterlanetik hartu da.

Alkoholaren kontsumoari dagokionean


Euskadiko Adikzioen Planean biltzen diren datuak kontuan hartuta, alkohola da gehien kontsumitzen den substantzia eta kolektiboen artean presentzia handia duena.

Edari alkoholdunen kontsumoa oso normalizatuta eta egunerokoan presente dago. Normalizazio sozial horrek zaildu egiten du alkoholaren kontsumoa problematikoa dela eta ondorio handiak dituela antzematea.

Erreferentziazko figurek ez lukete edaria haurren aurrean normalizatu behar, baina ohikoa da edari alkoholdunak kontsumituz aisialdiaz gozatzea. Horrela, haur askok edariaren kontsumoa normaltasun osoz behatzen eta bizitzen dute. Gure txikiek pertsona erreferenteen jokabideak kopiatzen eta errepikatzen dituzte, eta gure ekintzen bidez transmititzen ditugun mezuez ez gara jabetzen. Azpimarratzekoa da helduen artean kontsumo handiagoa dagoela gizonen aldetik, baina egungo kontsumoan ez da ikusten desberdintasun sozialaren patroirik, baina bai gizonen eguneroko kontsumoan.

Alkohol-kontsumoaren bilakaerari (2006-2022 dagokionez), Drogak eta Eskola argitalpenaren arabera, bigarren hezkuntzako ikasleen artean alkohol-kontsumoak etengabe egin du behera 16 urte horietan (2006tik 2022ra) egindako lau neurketetan. Murrizketa horrek, ordea, ez du jarraibide komun bat. Hiru ideia nabarmenduko genituzke:

- Beherakadarik handiena 2006-2011 aldian gertatu da hiru kontsumo kasuetan.
- Garrantzitsua da 2017/2022 urteen arteko beherakada iniziatikoa, agian "Covid" efektuagatik, pertsona asko geldiarazi ahal izan baitu.
- Azken hilabeteko kontsumoari buruzko datuen arabera, badirudi beherakada horrek hondoa jo duela, ez baitago alderik 2017/2022 aldian. Kasu horretan, "Covid" aren eragina askoz txikiagoa izan daiteke, egungo azterlanaren datuak biltzeko aldian (2021eko urriaren 1etik 2022ko apirilaren 1era) mugigarritasunaren eta alkohola eskuratzeko aukeraren murrizketak oso txikiak baitziren.




(Drogas eta eskola X)

Konfinamenduan ostalaritzan izandako murrizketek espazio publikoetako kontsumo soziala jaisten lagundu zuten. Hala ere, tabernetatik eta ostalaritza-establezimenduetatik kanpo alkohol-salmenta eta -kontsumoa areagotu egin da, alegia, espazio pribatuetan.

Kanabisaren kontsumoari dagokionean

Kanabisa da oraindik gehien kontsumitzen den substantzietako bat eta herritarren artean kezka gehien sortzen duenetakoa, kontsumoa altua delako eta kontsumoaren normalizazioa gero eta zabalduagoa dagoelako.

Helduen artean, kontsumoaren prebalentzia handiagoa da gizonen artean. Bigarren hezkuntzako nerabeen artean antzeko zerbait gertatzen da; Kanabisa, oraindik ere nagusi da mutilen artean, kontsumo eta onarpen maila altuak baitituzte. Kanabisaren kontsumitzailearen profil tipoa gizonezkoa, gaztea eta ikasketa txikikoa da, baina adin nagusiagoetan ere kontsumoak gora egin du, baliteke kanabisaren kontsumitzaileek ere adinean aurrera egiteagatik.




Tabakoaren kontsumoari dagokionean¹

Tabakoa da gehien kontsumitzen den drogetako bat, nahiz eta azken urteetan hartutako neurriekin kontsumoa murriztea lortu den. Hartu diren neurrien artean daude tabakoaren legea, tabakoa erretzeari uzteko taldeak, ostalaritza-esparruetan tabakoa kontsumitzeko mugak eta beste batzuk.

Ikasleen tabako-kontsumoari dagokionez, Drogak eta Eskola dokumentuak adierazten du, bilakaerari dagokionez, kontsumoaren hedapenak beheranzko joera duela ezarri diren erabilera-kategoria guztietan. Hala ere, azpimarratzekoa da kontsumo-maiztasun handienetan, egunean 6 zigarrotik gora, nolabaiteko geldialdia dagoela. Badirudi bigarren hezkuntzako ikasle asko sentsibilizatu egin direla kontsumitzen ez hasteko, baina, hala ere, beste batzuek erretzeko asmoari eutsi egin dietela, nahiz eta erretze-maila mugatu bat mantentzen duten.

¹ Drogak eta Eskola X



Datu negatibo legez, hazkunde nabarmena eta azkarra ikusi da nikotina askatzen duten gailuen edo lurrungailuen erabileran eta merkaturatzean, hala biztanlerian orokorrean nola adin txikikoen artean.

Beraz, biriketako eta garuneko kalteetatik haratago doazen arriskuez informatzeko eta kontzientziatzeko beharra ikusten da.


Beste substantzia batzuen kontsumoa

Legez kanpoko beste droga batzuen kontsumoak pixka bat gora egin zuen. Gehien kontsumitzen diren substantziak kokaina eta anfetaminak dira, batez ere aisialdiarekin eta jolas-kontsumoarekin lotutako droga estimulatzaileak. Substantzia horien ohiko kontsumoari dagokionez, kokaina da berriz gehien kontsumitzen dena.

Bigarren hezkuntzako ikasleen artean, legez kanpoko substantzia guztien kontsumoa jaitsi egin da. Drogak eta Eskola azterlanaren arabera, 15 urte hauetan kontsumoak izan duen bilakaerak agerian uzten du beherakada nabarmena izan dela substantzia horren erabileran eta kontuan hartutako hiru denbora-espazioetan, bizitzan noizbait, azken urtean eta azken hilabeteetan.

Kokaina, aintzat hartutako beste bi substantzia estimulatzaileak bezala (anfetaminak eta MDMA), 2007-2008 aldiko krisia baino askoz lehenago hazi ziren. Hazkunde ekonomikoko garaia izan zen, eta oso modan jarri zen diskotekekin lotutako aisialdia, eta horrek kontsumoa zabaltzen lagundu zuen. Gure ustez, haren ondorengo krisiak haren hedadura geldotzeaz gain, kontsumoa ere murriztu egin du, aisialdi eta giro mota hori ere murriztuz joan den heinean.


Legez kanpoko substantzien kontsumo gehiena gizonen artean ematen da. Psikofarmakoen kontsumoa, berriz, batez ere emakumeen artean gertatzen da, arazo eta egoera gatazkatsu jakin batzuei aurre egiteko ihesbide azkar moduan erabiltzen baitira, besteak beste, antsietatea eta estresa arintzeko. Adingabeei dagokienez, Drogak eta Eskola azterlanaren arabera, substantzia horien erabileraren bilakaerak neurrizko hazkunde baina etengabea erakusten du, batez ere urteko eta hileko erabileretan, bi sarbide-modalitateetarako. Bilakaera horrek, hasiera batean, pandemiak eta hartutako neurriek hazkunde horretan lagundu ahal izan dutela adierazten du, eta ikusi behar ea denboran zehar kontsumo horiek murriztu ala hazten jarraitzen duten.




Nerabeek gero eta edari energetiko gehiago kontsumitzen dute. Bakarrik edari energetikoak kontsumitzen dituztenen bilakaerari dagokionez, hasiberrien beherakada nabarmena salbu, igoera txikiak hauteman dira beste bi kontsumo-kategorietan.

Nahasketen kontsumoak aztertzean ikusten da hasierako kontsumoak behera egin duela, kontsumoa azken urtean zertxobait jaitsi dela eta hilabeteko kontsumoa zertxobait igo, baina egonkortu egin direla kontsumoa azken urtean eta hilabeteen.

Bilakaeraren datuek kontsumoa nolabait egonkortu egin dela pentsatzera garamatzate.





Substantziarik gabeko adikzioak (online jokoak, kirol-apustuak, Internet)

Bideojokoen, Interneten eta sare sozialen gehiegizko erabilerak eta horietatik eratorritako nahasmenduek gora egin dute. COVID- 19aren pandemiak adikzio-kontsumoetan eta -portaeretan izandako eraginak hazkunde nabarmena ekarri zuen sare sozialen eta bideo-jokoen erabileran.

Horregatik, gaur egun adikzio berri bati, alegia, teknologiei eta gailu eta sare sozialen gehiegizko erabilerari aurre egiten ari gara. Tresna elektronikoak, sare sozialak eta aplikazioak ezinbesteko tresna bihurtu dira komunikatzeko, ezagutzak eskuratzeko eta arreta galtzeko. Hala ere, erabilera desegokiak eta teknologia horien abusuak ondorio kaltegarriak izan ditzakete.

Interneten, sare sozialen eta bideo-jokoen erabilerak gora egin du herritar guztien artean, baina, batez ere, 18 urtetik beherakoen artean, ordutegiak aldatu direlako, sozializaziorik ez dagoelako eta konfinamenduan errutinak gutxiago kontrolatzen zirelako. Portaera mota horrek eragina izan dezake pertsonaren bizitza pertsonalean, sozialean, akademikoan edo lanekoan, eta eredu errepikakor eta kontrolaezin gisa ager daiteke, eguneroko bizitzako beste jarduera garrantzitsu batzuk oztopatuz, hala nola interakzio soziala, lana edo ikasketa.

Erronka nagusia teknologiaren erabileran oreka egokia aurkitzea eta gailu mugikorrek adin gomendagarrian erostea da.

Jokoaren prebalentziaren bilakaerari dagokionez, jokoetan parte hartzeko maiztasuna bi aukeratan murriztu da: "azken urtean jokatu du" edo "ez du jokatu". Bilakaera ikusita, aurrekoaren antzeko emaitzak ditugu:

- Diruarekin egindako beste apustu edo joko batzuek behera egin dute aztertutako tipologia guztietan.
- Gutxi jaitsi da txanpon-makinen erabilera, eta are gutxiago online jokoena.
- Nabarmen jaitsi dira karta-jokoak eta, batez ere, kirol-apustuak.
- Aurreko grafikoan adierazi bezala, nahiz eta guztiek behera egin, praktika indibidualagoek neurritz egiten dute behera, eta taldekakoak erabat jaitsi dira.




5. ERMUKO ADIKZIOEN TOKIKO PLANA 2025-2029

Planaren ezaugarri nagusiak honakoak dira:

- Udalbatzak bultzatutako tresna, eta, beraz, planteatutako ekintzak eta programak ere bai.
- Erantzuna ematen saiatzen garen premien zerbitzura, bai eta adikzioen fenomenoari aurre egiteko programek inspiratu behar dituzten printzipio orokor eta espezifikoaren zerbitzura ere.
- Erakunde eta administrazioen ahalik eta parte-hartze handiena bultzatu behar du, hasierako faseetatik, egoeraren azterketa zuzen batetik abiatzeko.
- Asmoa adikzioen fenomenoari bere osotasunean heltzea da, bai legezko drogei dagokienez, bai legez kanpokoei dagokienez.
- Tresna dinamikoa, berau eragiten duen egoera sozialarekin batera aldatuz joango dena.
- Tresna bateratzailea, administrazioaren maila desberdinetatik emandako erantzunei eta zerbitzuetatik egindako ekarpenei koherentzia emateko gai dena, baliabideak errentagarri izateko eta ekimenak harmonizatuz.
- Etengabe ebaluatuko da.
- Bi esku-hartze mailaren inguruan (unibertsala eta selektiboa) egituratzen diren estrategia eta esku-hartzeak proposatzen ditu, horietako bakoitza hiru jarduera-eremutan banatuta (eskola, familia eta komunitatea).
- Eskaria murriztera (arriskuak prebenitzera eta murriztera) bideratutako ekintzak biltzen ditu funtsean, bere eskumen-eremuaren barruan eskaintza gutxitzearekin lotutako alderdiak ahaztu gabe.

5.1. Esku hartzeko lehentasunezko espazioak eta kolektiboak

Diagnostikoa dagokionez, garrantzitsua da esku hartzeko espazioak eta kolektiboak ezartzea, prebentziozko esku-hartzea eta osasunaren sustapena garatzeko.




Planteatutako esku-hartze kolektiboez eta gunez gain, ezinbestekoa da PREBENTZIO KOMUNITARIOA, komunitatea osatzen duten pertsonen bidez komunitatea prestatzea eta indartzea bultzatzen baitu, eta osasun pertsonalari eta kolektiboari kalte egiten dioten ingurumen-elementuak aldatzen parte har dezaten erakartzen du. Adikzioak oso arazo handia dira, eta ondorioak ditu bai pertsonarengan bai gizartean. Adikzioen kontsumoa murrizteko, prebentzio-ekintzak egin behar dira, gaur egun tresna eraginkorrena baita.

5.2. Ildo estrategikoak eta ekintza-proposamena

Adikzioen Plan Komunitarioaren jarduera-ildoak udal mailako honako hauek dira:

- **Eskaintzaren kontrola:** Eskaintza murriztea, eta, horretarako, drogen eta apustu-etxeen eta ausazko jokoak bezalako jardueren kontrola behar beharrezkoa da, dagoen araudia betearaziz, horiek arautuz eta drogen legez kanpoko trafikoa kontrolatzea.
- **Prebentzio Unibertsala:** Babes-faktoreak indartzea eta jarrera eta ohitura osasungarriak sustatzea, mendekotasun-portaerak saihesteko.
- **Prebentzio Selektiboa eta Adierazia:** osasunaren prebentzioa eta sustapena eskubide legez bermatu behar da, pertsona eta kolektibo kalteberen, eta bereziki gazteen beharretara egokitua.

Esku-hartzeak hiru eremutara bideratuko dira batez ere:



ESKOLA-EREMUA		
HELBURUAK	Eskola-ingurunean gertatzen den hezkuntza-prozesuaren bidez jarrera eta ohitura osasungarriak sustatzea, mendekotasun-portaeren aurrean babes-faktoreak indartuz.	
	Babes-faktoreak sustatzea eta, horrela, ikasleen mendekotasun-jokabideei eta horiekin lotutako egoerekin zerikusia duten arrisku-faktoreak murriztea.	
ESTRATEGIAK	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
1. ESTRATEGIA: Jokabide osasungarriak hartzen laguntzen duten gaitasun, trebetasun eta tresnetan ikasleak trebatzea.	1. ekintza: Lehen Hezkuntzako ikasleekin prestakuntza-ekintzak inplementatzea, ohitura osasungarriak sustatzeko eta adikzio-jokabideak prebenitzeko: berdinen arteko bizikidetza eta errespetua, emozioak, sare sozialen erabilera osasungarria...	-Egindako prestakuntza-ekintzak. -Ikasle parte-hartzaileak -Ikastetxe parte-hartzaileak
	2. ekintza: Bigarren Hazkuntzako ikasleekin prestakuntza-ekintzak inplementatzea, batez ere alkoholaren, kanabisaren, tabakoaren, lurrunaren eta bestelako jokabide-adikzioen (online jokoak, kirol-apustuak, mugikorraren erabilera egokia) kontsumoa prebenitzeko.	
2. ESTRATEGIA: Ermuko ikastetxeetako irakasleak trebatzea, osasuna sortzeko eta adikzioak prebenitzeko faktoreen garapena eskola-curriculumetan sar dezaten.	1. ekintza: Irakasleei baliabide didaktikoak erraztea, ikasgeletan prebentzio-jarduerak garatu ahal izan ditzaten.	-Emandako materialak. -Egindako prestakuntza-tailerrak. -Parte-hartzaileak, sexuaren arabera bereizita.
	2. ekintza: Eskaeren arabera, irakasleei adikzioen fenomenoarekin, prebentzio-programekin eta ikastetxeetan aplikatzeko moduekin lotutako gaiei buruzko prestakuntza ematea.	
3. ESTRATEGIA: Irakasle-taldeei laguntzea adikzio-portaerekin lotutako ahultasun bereziko egoeran dauden adingabeak goiz detektatzeko eta esku hartzeko.	1. ekintza: Eskaera zehatzen aurrean, irakasleei, duten hezitzaile-roletik abiatuta, informazioa ematea drogen kontsumo problematikoei eta adikzioekin lotutako jokabide disruptiboei aurre egiteko.	-Egindako prestakuntza-tailerrak. -Gizarte Zerbitzuetara egindako bideratzeak. -Parte-hartzaileak generoaren arabera bereizita.
	2. ekintza: Ikastetxeen eta udaleko gizarte-zerbitzuen artean deribaziorako eta esku hartzeko estrategiak diseinatzea, kontsumo problematikoak dituzten adingabeen arazoei erantzuteko (hautematea, bideratzea eta esku-hartzea).	

FAMILIA-EREMUA

HELBURUAK	Familia-ingurunean gertatzen den hezkuntza-prozesuaren bidez, mendekotasun-portaerekiko babes-faktoreak indartzea eta jarrera eta ohitura osasungarriak sustatzea.	
	Familiak gaitzea eta ahalduntzea, kalteberatasuna murrizteko eta, horrela, arrisku-baldintzak mugatzeko.	
ESTRATEGIAK	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
1. ESTRATEGIA: Familiak gaitzea Osasunerako Hezkuntzaren eta Adikzioen Prebentzioaren arloan dituzten guraso-eskumenak hobetzeko, informazio- eta prestakuntza-espazioak sortuz.	1. ekintza: Ikastetxeeko guraso-elkarteekin lankidetzan aritzea, adikzioen inguruko kezkak eta eskaerak ezagutzeko.	-Izandako lankidetzak/topaketak -Egindako prestakuntza-ekintzak. -Parte hartzaileak. - Emandako materialak.
	2. ekintza: Gurasoen elkarteek adikzioen inguruan egindako eskaerei erantzungo dieten jarduerak garatzea.	
	3. ekintza: Familiei hezkuntza-tresnak ematea, seme-alabekin ikasgeletan egindako lana osatzeko (dokumentazioa, gidak).	
2. ESTRATEGIA: Kontsumo problematikoei dagokienez, arrisku eta kalteberatasun bereziko egoeretan dauden adingabeak dituzten familiekin, esku hartzeko proposamen eraginkorrak bultzatzea.	1. ekintza: Udaleko Gizarte Zerbitzuekin eta Osasun Zentroekin koordinazioa izatea, kontsumo problematikodun adingabeak dituzten familiek arreta egokia izan dezaten.	-Egindako koordinazioak. - Artatutako kontsultak. -Zerbitzu espezializatuetarako laguntzak.
	2. ekintza: Behar duten familiei edo pertsonei adikzioei arreta emateko zerbitzu espezializatuak eskuratzen laguntzea.	

KOMUNITATE-EREMUA		
HELBURUAK	Herritarrak osasunerako hezkuntzarekin eta adikzioen prebentzioarekin lotutako elementuez informatzea/sentsibilizatzea.	
ESTRATEGIAK	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
1. ESTRATEGIA: Jokabide osasungarriagoak sortzeko ekintza komunitarioak garatzea	1. ekintza. Informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak garatzea.	-Egindako ekintzak -Parte-hartzaileak -Entregatutako materialak
2. ESTRATEGIA: Osasunaren sustapenean esku hartzen duten beste eragile batzuekin sarean lan egitea	2. ekintza: agente sanitarioekin koordinatzeko guneetan parte hartzea	-Koordinazioa zein eragilerekin egiten den - Bilerak/koordinazioak

5.3. Planaren ebaluazioa eta koordinazioa

Plana etengabe ebaluatuko da, eta urtero gauzatuko da. Ebaluazioa egiteko, planean jasotako helburuak, estrategiak eta adierazleak hartuko dira kontuan. Hala ere, plana garatzeko aurreikusitako denbora amaitzean, balorazio orokor bat egin beharko da, honako adierazle hauek kontuan hartuta:

ADIERAZLEAK
Osasuna sustatzeko eta adikzioak prebenitzeko programetan parte hartzen duten ikastetxeak.
Eremu ezberdinetan egindako programen kopurua.
Programan parte hartu duten ermuarrak: ikasleak, irakasleak, gurasoak...
Profesionalentzat egindako prestakuntza-jarduerak.
Banatutako baliabide didaktikoak.
Sortutako eta banatutako informazio- edo sentsibilizazio-materialak
Plana betetzen lagundu duten erakundeak.
Koordinatuta lan egin duten baliabide komunitarioak eta harreman horren ondorioz gauzatutako ekintzak.
Egindako aholkularitza-konsultak eta konsulta horien arrazoiak.

Komunitateko profesional eta eragile desberdinen beharrak kontuan hartuta, Udaleko sail, arlo eta baliabideen arteko koordinazioa egingo da, bi helbururekin: elkarrekin proiektuak garatzea edo lehendik dauden proiektuetan elkarlanean aritzea eta horiek hobetzea, betiere osasuna sustatzeko, adikzioak prebenitzeko eta portaera problematikoei lotutako arriskuak murrizteko helburuarekin.